

## **Merkatuaren segmentazioa:**

Gure enpresaren bezero nagusia ingurumenaz arduratzen eta ingurumena inportatzen zaion jendea da, birziklatutako zaborrarekin egindako arropa erostea gustuko duena, ingurumena zaintzeko helburua duena. Ez da edozein pertsona, baizik eta bere janzteko moduak zerbait esan dezala nahi duen norbait, eta "fast fashion"-aren ordezkari aukera jasangarriagoak bilatzen dituenak.

Normalean 18 eta 40 urte arteko pertsonak dira, batez ere gazteak, hirietan bizi direnak, nahiz eta arropak adin guztietarako izan, diseinuagatik. Diseinu desberdina eta originala gustatzen zaie, eta arropa eskusiboa baloratzen dute, denek berdina janztea saihestuz. Ingurumena zaintzea garrantzitsua iruditzen zaie, eta horregatik prest daude arropa birziklatua erosteko. Sare sozialetan mugitzen dira asko eta markaren istorioa edo mezua interesatzen zaie.

Bezero hauek markarekin identifikatuta sentitu nahi dute, eta gustatzen zaie jakitea arropa erosteak ingurumenari laguntzen diola. Ez dute soilik janzteko arropa bilatzen, baizik eta beraien balioak adierazteko modu bat.

Gure merkatua ez da masiboa, denentzat ez delako, baizik eta moda jasangarria gustuko duten pertsonentzat pentsatua eta ingurumena zaintzeko esfortzua egin nahi dutenentzat. Hala ere, merkatu barruan hainbat bezero mota daude: alde batetik, estilo alternatiboa eta sortzailea duten gazteak, eta bestetik, kontsumo arduratsua egiten saiatzen diren pertsonak, ingurumenaz eta gizarte-arazoez kezkatuta eta arduratzen daudenak.

Azken batean, argi daukagu zeintzuk diren gure bezeroak eta zergatik. Bezero hauek dira gure enpresaren oinarria, haien gustu eta beharretara egokitzen baitugu gure arropa, enpresak aurrera egin ahal izateko.

Gure arropa adin guztietako eta genero guztietako pertsonentzat pentsatua dago, gustu ezberdinak kontuan hartuta. Estilo desberdinak eskaintzen ditugu, pertsona bakoitzak bere burua identifikatuta sentitzeko. Bereziki ingurumenaz arduratzen direnentzat zuzenduta dago, baina kalitate ona prezio merkean bilatzen dutenentzat ere egokia da.